

EUSKALERRIKO NESKATILLAK



Ardi-talde bat, auntz batzuk, beiak, lurrak, echecho bi, izarra lazko iru alaba eder berari biarrean laguntzeko ta osasun ederra ¿zer bear eban geiago zorion izateko?—Ezer ez.—Alan gomutaten eban Antonek.

Bere emazte onak, irugarren alabea argitaratu ebanean igo eban zerrura, ta aren antz-antzekoa zan berau, izena bere arena, Luisachu, urrezko uleduna, urdiña eguzkia legez, liraiña, ta danezbera, ona ta Aitaren kutuna.

Ille-bete barruan eskondu iakozan alaba nausi biak; bat, auzko mutil sendo bategaz, bestea, echean bertan biar egiten eban bategaz, azkarra mutilla, chikitatik echean ta semetzat legez eukana. Zorion izango zirean bere alaba-nagusibiak.

Bata, auzokoak bere echera eroan eban, bigarrenari beste echea emon eutsan, ta alan, baten biziko balitzakez legez geldituko zirean.

Luisachu barriz, Luisachu polita, beragaz; ezaban echetik urtengo ta bera ill-arte etzan aldenduko.

Etzan igaro denpora asko, iausi zan erri atan ola edo *fabriketan* egiten direan gauzak erakusten, dendarik denda, ibiltan direan gazte bat, polito apaindua ta erkinchua izan arren ez alako motza bere.

Erri atan eukan onek ezagun bat, bera *sarjento* izan zanean beragaz egoniko erri atako gazte bat, ta onegaz egoala ikusi eban gure Luisachu.

—Ori, esan eutsan lagunak *sarjentuari* ur auditako arraiña da; neskatilla orren Aitak berorrek piñu daukan baiñoontzako geiago daukaz.

Begi galantak zabaldu ebazan arek ta Luisachuri itz egitea zan bere gogo guztia, ta egun atan lagunak bitartez bete eban gogoa ¡Ainbeste ontzako! ¡ene bada! ¿zelan ez?

Itz etorri andikoak izaten dira onek ezereskeriak esateko; ta danez bere kontu onetan.

¡Zer ez ete eutsan esan! Emen eztakie ezer, au ezta bizitea, beragaz erregiña bat legez biziko zan, beragaz biarrik egiterik ezegoan, beragaz zorion izango zan; ta eztizko berbakin, onek danak ta beste gauza asko nastuta iausi zirean Luisachuren biotz samurrean.

Onek ezebazan erdiak bere aitu, baiña *señorito* aren agotik urte-niko berbak, egjak izan bear eban, ta ganera onak.

Bera lar ona zan legez, siñizkorra zan, ta ¿zelan uste izango eban berak ari entzunagaitik ta siñiztuteagaitik charrik etorriko-iakala? bera ona zan, ta bera legaz danak zireala uste eban, errukarriak.

Alan da guzti echera eldu zanean lotsacho egoala, Aitari begiratuten eutsanean, ikusi eikean.

Baiña, gau atan bein baiño geiagotan gomutau zan *señorito* aregaz.

¡Ain eukan barre gozatsua, ain eukan modu andia gauzak esateko ta ain politak esan eutsazan! ta oindiño berak esan eutsan legez, ain garramura andiaz egoan urrengo egunean beste batzuk esateko! ¿zelan gomutau ez beragan? ¿zertzuk esango ete eutsazan urrengo egunean...?

Gau guztian bere gomutan egongo zana, esan eutsanetik ta, bera ¿zegatik etzan egongo?

Aren gomutan egotiak ezeukan charrik, ta ganera ¿eskerrak ezin leikiozan laungoikoari emon, alako gazte iakitun ta moduztasun andiko bat beragan gomutetan zalako? ta esan ebanetik, bere zoriona baiño opa ezaban batek, beragaz bizi-gura izateaz baiño ames egiten ezaban batek, ¿zer euki al leikean, bere onerako izan ezeko gauzarik..?

Bai, urrengo egunean beraz egongo zan, ta al eban denpora guztian.

Ganera berak ezagututen eban zerbait erri atako gaztea, aren laguna, ta erri atako gazteak onak zirean ¿bere aitzaren gizonak be onak zirean. ¡baiña a, gaztea zan, ona ta ganera *señoritoa*, iakituna ta bera *erregiña bat legez erabiliko ebana...!*

Andresek; bere auzoko Andresek, begiratuten eutsan asko, ta lagun batetik ekian legez, beti eukan zerbait esateko gogoia, baiña iñoz ezeutsan ezer esaten.

Andres mutil ona zan, bere aitzaren gizonak legez biargiña, ariña, bizkorra ta galanta, baiña *señorito* aren ondoan... etzan ezer.

Arek esan eutsazan gauzak ¿zelan esango eutsazan Andresek?

Eta ganera, erregiña bat legez ¿zelan biziko zan onegaz? Arek ule orraztuak, bere kapel polita, iantzi eder ta garbiak, urrezko elestunak (antza bai) ta beste gauza asko; Andresek barrik abarkak, praka loiak, tsapel bat ta ule biribilak, pollitak eurak, baiña... orraztu barik.

Andresegaz, beti biarrean ibilli bearko eban, aregaz barriz ederto apaindurik, biarrik egin barik ta aurki berak aginduten ebana egiteko beste neskaitilen batzuk eukiko eubazan ta... *erregiña bat legez biziko zan.*

Urrengo egun bitan *señorito* arek ¿zer ezeutzan esan!

¿Eta berak? berak errukarriak ¿zer esango eutsan! ezekian erderarik gichi baiño ta ¿zer esango eutsan!

Baiña bestearenitz egitean ta begirakunean *igarten* eutsan Luisachuk, biotz guztiaz maite ebala ta beti izango ebala kutun.

Ioan zan ba a, esanaz beste ille-bete barru bera ikuste etorriko zala, denpora onetan bere gomutan egongo zala ta eztaikit beste zeinbat onetariko.

Luisachu etsera biurtu zan zoraturik ta *erregiña bat legez biziko zala* esaten ebala.

Aita, bere Aita, etorri zanean solotik nekatuta, Luisachu etzegoan atean itzaroten bestetan legez.

Aitak ikusi ebanean esan eutsan:

—Luisachu neurea, ¿zereginchuetan zagoz? Amaren antz-antzekoa zara arpegian ta baita egiteetan bere, ¿berak legez maite nozu, Luisachuneurea?

Luisachu ikaratu zan, ta «Bai, aita» ostaz ostaz erantzun eutsan.

OCHANDIO.

(*Iarraituko da*)

